XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2431

AGINDUA, 2012ko apirilaren 16koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena; honen bitartez hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamenduari buruzko arauak ematen dira.

Hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituen otsailaren 4ko 138/2011 Errege Dekretuak irailaren 8ko 3099/1977 Errege Dekretua eta haren ondorengo aldaketak ordeztu ditu baita instalazio mota horientzat aplikazio-irizpide berriak ezarri ere, aurreko araudia Europako xedapenetara egokituz.

Ondorioz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, hala eskatzen duten alderdietan, aipatutako Erregelamendua garatzen duen eta bestetik, Autonomia Erkidego honetan dagoen araudia argitzen duen arau bat emateko beharra ikusi du, arau-esparru berri honetara egokitzeko helburuarekin. Bestalde, beharrezkoa da espedienteak izapidetzeko erabilitako dokumentuak eguneratzea.

Aipatutako lege-xedapenak eta oro har aplikatzekoak diren eta horiekin bat datozen gainerako arauak aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Instalazioak abiaraztea.

1.– Hozteko instalazioak abiarazteko industriaren arloan eskumena duen lurralde organoan erregelamenduz ezarritako segurtasuneko eskakizun eta baldintza teknikoak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Proiektudun instalazioen kasuan (2. maila), gainerako dokumentazioarekin batera, «Abiarazte Jakinarazpenaren» dokumentua aurkeztuko da, eta Administrazioak bideratu ondoren, abiarazteari buruzko betebehar administratiboak bete direla egiaztatzeko baliagarria izango da. Ondorio horietarako, proiekturik ez duten industria-instalazioen kasuan (1. maila), aurkeztutako instalazio-ziurtagiria, Administrazioak bideratu ondoren, baliagarria izango da betetze hori egiaztatzeko.

Izapidetze telematikoen kasuan, betetze-egiaztagiria aplikazio informatikotik bertatik lortu ahal izango da instalazio-ziurtagiria aurkeztu ondoren. Egiaztagiri horretan erregistro-zenbakia, aurkezpen-data eta industria-instalazioaren identifikaziorako datu garrantzitsuenak adieraziko dira.

Administrazioak egindako dokumentu horien sarrera-erregistroak ez du ekarriko instalazioaren edo aurkeztutako dokumentazioaren egokitasunaren aldeko iritzia ematea.

2.– 1. eranskinean 2. mailako instalazioetarako abiarazte-jakinarazpenaren eredua adierazten da eta 2. eranskinean, berriz, instalazio mota guztietarako instalazio-ziurtagiriaren eredua.

3.– 3. eranskinean instalazioaren memoria teknikoaren gutxieneko edukia adierazten da.

4.– Proiektudun instalazioen kasuan, hozteko instalazioen abiarazterako funtsezkotzat hartuko dira honako dokumentu hauek: abiarazte-jakinarazpenaren dokumentua, proiektua,

obra-zuzendaritzako ziurtagiria, instalazio-ziurtagiria eta behe-tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria.

Proiekturik ez duten instalazioetan, funtsezkotzat hartuko dira instalazio-ziurtagiria eta behe-tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria.

2. artikulua.– Salbuetsitako instalazioak.

Hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamenduaren 2. artikuluan salbuetsitako instalazioez gain, salbuetsitzat hartuko dira, arau honetako administrazio izapidetzeari dagokionez, Eraikinetako Instalazio Termikoetan soilik erabiltzen diren hozte-sistema primarioak; izan ere, uztailaren 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren (EITE) 2. artikuluan ezarritako aplikazio-eremuan biltzen dira.

3. artikulua.– Gaitutako profesionalak.

Hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamenduaren 9. artikuluan ezartzen diren kualifikazioak biltzen dituzten profesionalek industriaren arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzan izena ema ahal izango dute.

4. artikulua.– Hozteko instalazioen enpresak.

1.– Erregelamendu hau aplikatuko duten enpresa jarduleak eta hozgarri fluoratuak maneiatzen dituzten enpresak gaitzeko, industriaren arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzan erantzukizun-aitorpena aurkeztu beharko dute. 4. eranskinean erantzukizun-aitorpenaren eredua adierazten da.

2.– Enpresek ekoizle-izaera izango dute eta horretarako, dagokion dokumentazioa izapidetu beharko dute Ingurumenaren arloan eskumena duen Sailean.

Desegindako hozteko ekipoen bajak industriaren arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko zaizkie. 6. eranskinean desegite-ziurtagiriaren eredua adierazten da.

3.– Kalte fisiko edo material garrantzitsuak eragiten dituzten istripuen berri eman beharko zaio industriaren arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzari.

4.– Hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamenduaren 26.2 artikuluan ezartzen den enpresa mantentzaileen aldizkako berrikuspenaren ziurtagiriaren eredua 5. eranskinean adierazten da.

5.– Hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamenduaren 12. artikuluan adierazten den instalazio-erregistroak erregelamenduaren 26.2 artikuluan adierazitako egindako berrikuspenak bildu beharko ditu baita desegindako instalazioak ere.

5. artikulua.– Baldintza bereziak.

Hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamenduan edo horien Jarraibide Tekniko Osagarrietan adierazitakoez bestelako irtenbideak nahi diren instalazioetan, industriaren arloan eskumena duen Zuzendaritzaren onespen-ebazpena lortu beharko da abiaraztearen aurretik.

Horretarako, industriaren arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzan dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, eta Baimendutako Kontrol Organismo baten aldeko txostena gaineratu beharko dute, bertan adieraziz betetzen ez den xedapena eta segurtasun baliokidea bermatzeko proposatzen diren neurri alternatiboen edo ordezko neurrien egokitasuna. Onespen-ebazpena

lortu ondoren, ebazpen hori eta erregelamenduz ezarritako segurtasuneko eskakizun eta baldintza teknikoak egiaztatzen dituen gainerako dokumentazioa aurkeztuko dira abiaraztea gauzatzeko.

6. artikulua.– Instalazioak geldiaraztea segurtasun-arrazoiak direla medio.

Instalazioetan diharduen agenteetakoren batek (hozteko instalazioen enpresak edo kontrol-organismoak) pertsonei, florari, faunari edo ingurumenari kalteak eragiteko arrisku larria eta hurhurrekoa ekar dezaketen egoerak atzematzen dituenean, instalazioa edo ekipoa badaezpada geldiarazi egin beharko du, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2001eko martxoaren 26ko Instrukzioaren arabera (2001-05-9ko EHAA).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehendik dauden enpresa instalatzaileek gaur egungo kategorietan jarraituko dute baina erregelamendu berriko 1. mailara igaro nahi dutenek erregelamendu horretan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eta industriaren arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzan dagokion erantzukizun-aitorpena aurkeztu. Era berean, enpresek 2. mailara igarotzeko industriaren arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzan dagokion erantzukizun-aitorpena aurkeztu beharko dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen honek indargabetzen ditu hozteko instalazio jakin batzuk eta presio-aparatuak abiarazteko izapidetze-prozedura ezartzen duen 2005eko irailaren 1eko Agindua (2005-10-17ko EHAA) eta xedapen honetan bertan ezarritakoaren aurkakoa xedatzen duten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Gaian eskumena duen zuzendariari ahalmena ematen zaio Agindu honi gaineratutako eranskinak aldatzeko edo dokumentu berriak gaineratzeko, baita instalazio mota hauen betekizunen aplikazio praktikorako gidaliburu teknikoak lantzeko ere.

Bigarrena.– Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 16a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

1.ERANSKINA: ABIARAZTEAREN JAKINARAZPENA

Espediente zk.

ABIERAZTE JAKINARAZPENA

HOZKAILUEN INSTALAZIOAK ☐ Berria ☐ Moldaketa

■ Eskatzailea

Izena | NAN | Tf.
PK-Herria - | Kalea | Zk.

■ Titularra

Izena | IFZ
Kalea | Zk.
PK-Herria -
Tf. | e-mail

■ Instalazioaren xehetasunak

PK-Herria - | Kalea | Zk.
Lokal mota-maila (1) - | Xedea (2)
Instalatutako potentzia (2. maila) kW
Hoztorrea (kondentsadore ebaporatiboa) ☐ Bai ☐ Ez

Ekipo mota (3)	Ekipo kop.	Hozgarria kod/ taldea (4)	Kopurua [kg]	Konpr zk.	Kon. potentzia(5)	Eduk. [m^3] (6)	Mak. Kokap. (7)
		/					
		/					
		/					
		/					
		/					

Oharrak
(1) Biltegia, fabrika, jatetxe, denda, etxebizitza, bulegoa, etab.-eta maila A, B, C edo D.
(2) Iragankorren tratamentua, edo Industri prozesua, edo Izozte tunela, edo Izotz- fabrika, edo Patinajeko pista, edo Klimatizazioa.
(3) 0º< kamara, edo 0º>kamara, edo Hozkailua, edo Absorzio-ekipoa, edo Atm. artif. Kamara.
(4) Hozgarriaren zk. R-XXX (ISO 817ren arabera) eta taldea L1, L2 edo L3.
(5) Mota honetako ekipo guztien potentzia totala.
(6) Kamaren edukiera m^3 tan.
(7) Makinen kokapenaren sailkapena: Tipo 1, Tipo 2 edo Tipo 3.

■ Proiektua

Egilea | NAN
Oniritzia ☐ Bai Elkargoa
☐ Ez Titulazioa

■ Enpresa

Enpresa instalatzailea | IFZ
Enpresa mantentzailea | IFZ

■ EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA

Egungo araudiaren arabera instalakuntzaren abiarazteko, jarraian zehazten diren derrigorrezko agiriak aurkezten ditudala AITORTZEN dut:

☐ 1.- Proiektu teknikoa.
☐ 2.- Obra zuzendaritza egiaztagiria.
☐ 3.- Instalazioaren egiaztagiria.
☐ 4.- Behe Tentsioko instalazioaren ziurtagiria.
☐ 5.- Presio ekipoen CE onespen adierazpena.
☐ 6.- Mantentze-kontratu eguneratua.
☐ 7.- Erantzukizun seguru polizaren kopia (L2 edo L3 hozgarr. soilik).
- Beste batzuk: ☐ - Proiektuaren egilearen gaitasun adierazpena.
☐ -
☐ -

, ko ren a
(Sinadura eta zigilua)

Erregistrorako gunea

2. ERANSKINA: INSTALAZIOAREN ZIURTAGIRIA

HOZKAILUEN INSTALAZIOAREN ZIURTAGIRIA

EGIAZTAGIRI-ZK.

■ HOTZEKO ENPRESA

Izena ..... IFK .....
Helbidea ..... Tel. .....
Instalatzailearen izena .....
NAN .....

■ EGIAZTATZEN DU

1.- Honako ezaugarri hauek dituen instalazioak dagokion araudia (ED 138/2011) betetzen duela, eta kokapen tokiko dagozkion entseguak egin direla.

Instalazio tipoa ☐ Berria ☐ Handitzea edo moldaketa
Instalazioaren maila ☐ 1 ☐ 2 Instalatutako potentzia ..... kW
Titularra ..... IFK .....
Kalea ..... Zk. .....
Herria .....
Lokal mota-maila (1) ..... Xedea (2) .....
Hozte sistema ☐ Zuzena ☐ Zeharkako itxia ☐ Zeharkako irekia
☐ Zeharkakoa bikoitza irekia ☐ Zeharkakoa itxia aireztatua ☐ Zeharkakoa irekia aireztatua
Hoztorrea (kondentsadore ebaporatiboa) ☐ Bai ☐ Ez

Ekipo mota (3)	Ekipo kop.	Hozgarria kod./ taldea (4)	Kopurua [kg]	Konpr. Zk.	Konp. pot. (5)	Eduk. [m3] (6)	Mak. Kokap. (7)
		/					
		/					
		/					
		/					
		/					

☐ 2/2 Orrialdean jarriatzen du

(1) Biltegia, fabrika, jatetxe, denda, etxebizitza, bulegoa, etab.-eta maila A,B,C edo D.
(2) Iragankorren tratamentua, edo Industri prozesua, edo Izozte tunela, edo Izotz- fabrika, edo Patinajeko pista, edo Klimatizazioa.
(3) 0º< kamara, edo 0º>kamara, edo Hozkailua, edo Absorzio-ekipoa, edo Atm. artif. kamara.
(4) Hozgarriaren zk. R-XXX (ISO 817ren arabera) eta taldea L1, L2 edo L3.
(5) Mota honetako ekipo guztien potentzia totala.
(6) Kamaren edukiera m^3-tan.
(7) Makinen kokapenaren sailkapena: Tipo 1, Tipo 2 edo Tipo 3.

2.- Fabrikatzaileak emandako argibideak kontuan hartu eta ezarri direla, eta instalazioaren liburua duela.

3.- Bere funtzionamendua egokia dela.

4.- Honekin batera doaz:

☐ Instalazioaren memoria teknikoa (1. maila soilik).
☐ Presio ekipo guztien CE aitorpenak edo Fabrikazio ziurtagiria.
☐ Behe Tentsioko instalazioaren ziurtagiria.
☐

OHARRAK:

, ko ren a
(Sinadura eta zigilua)

3. ERANSKINA: INSTALAZIOAREN MEMORIA TEKNIKOA

1. mailako instalazioetarako, memoria teknikoaren edukia, gutxienez, honako hau izango da:

1.- MEMORIA
- a) Memoriaren helburua.
- b) Instalazioaren kokapena.
- c) Gaitutako enpresari buruzko datuak.
- d) Hotz-zirkuituaren deskripzioa.
- e) Hoztailearen karga eta babes-neurriak.
- f) Segurtasun eta kontroleko elementu eta gailu guztien deskripzioa.
  - i. Presostatoak (alta, baja) eta olio-diferentziala.
  - ii. Egoki diren segurtasun-termostatoak.
  - iii. Segurtasun-balbulak eta horien deskarga-hodiak.
- g) Kalkuluak
  - i. Sektore bakoitzeko diseinuko presio eta tenperatura.
  - ii. Aurreikusitako presio-galera.
  - iii. Eragiten dion IF jarraibide bakoitzaren betetze-justifikazioa.
  - iv. Aurreikusitako erregimen-tenperatura.
  - v. Fluxu termikoaren kalkulu justifikatua.
  - vi. Karga termikoen magnitudea.
  - vii. Segurtasun-balbulen eta deskarga-hodien diametroa.

2.- ESKEMAK – PLANOAK
- a) Eraikinaren solairuaren kokapena.
- b) Solairuko banaketa.
- c) Hodien diagrama, segurtasun eta kontroleko elementu eta gailu guztiak jasota.
- d) ……

4. ERANSKINA: HOTZ ENPRESAREN ERANTZUKIZUN-AITORPENA

INDUSTRIA SEGURTASUNEKO ERREGELAMENDU TEKNIKO BATEAN JARDUTEKO ENPRESA GISA GAITZEKO ERANTZUKIZUN AITORPENA

1.- HOZTEKO INSTALAZIOETARAKO SEGURTASUNari BURUZKO ERREGELAMENDUA
138/2011 ED (2011-3-8 BOE)

I.E. zk.

Gaitutako enpresaren zk.

2.- AITORPENA EGITEN DUENAREN IDENTIFIKAZIOA

Izen-abizenak

NAN

☐ TITULAR ☐ ORDEZKARI Gisa jarduten du

3.- AITORTUTAKO ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOA

Sozietate-izena

IFZ VAT zkia.(EB-ko enpresak)

Helbide soziala Zk.

Posta-kodea Udalerria

Lurralde historikoa EB-ko Estatua

Telefono-zenbakia Fax-zenbakia

Posta elektronikoa

Establezimenduaren kokapena ☐ helbide sozialaren berbera
☐ beste helbide bat:

Kalea Zk.

Posta kodea Udalerria

Merkataritza-izena

Telefono-zenbakia Fax-zenbakia

Posta elektronikoa

Web-orria

4.- ADIERAZITAKO ERREGELAMENDUARI DAGOKIONEZ, HONAKO ESPEZIALITATE HAUEK BETETZEN DITUELA AITORTZEN DU

☐ 1 mailako hozteko instalazioen enpresa (EF1) (Proiekturik gabeko instalazioak)
☐ 2 mailako hozteko instalazioen enpresa (EF2) (Proiektua duten instalazioak)
☐ Hozteko instalazioen enpresa automantentzailea (EFA) (Norberaren instalazioak)

5.- AITORPENAREN xedea
☐ adierazitako espezialitateetan jarduera hastea
☐ aurreko aitorpena aldatzea

AITORTZEN DUT:

a) Aitortutako pertsona juridikoaren titular gisa, haren eratze-eskritura eta haren estatutuak baditut, merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatuta daudenak, edo, aitortutako banako enpresaren titular gisa, enpresa hori eratu izanaren egiaztagiriak baditut, zerga- eta lan-arlokoak.

b) Enpresaren ordezkaria naizenez horren ordezkari gisa jarduteko lege-ahalmen nahikoa daukat.

c) Enpresak betekizun guztiak betetzen ditu, aitortutako espezialitateei buruzko industria-segurtasuneko erregelamenduan adierazitakoari dagokionez.

d) Betekizun horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak baditut.

e) Enpresak konpromisoa hartzen du jarduera indarrean dagoen bitartean eskatutako betekizunak betetzeko, baita erregelamenduen arabera aplikatu beharreko xedapenak betetzeko ere, jardunak egiten dituen autonomia-erkidegoan indarrean daudenak barne.

f) Enpresak erantzukizun zibil, abal edo berme nahikoa du bere jardunetatik erator daitezkeen arriskuak estaltzeko,
€-ko zenbatekoarekin (gutxienez 300.000 € 1. mailakoak eta 900.000 2. mailakoak)
Entitatearekin

g) 2. mailarako, enpresak bat kontratatu du arduradun tekniko gisa, eta horrek eskumena ematen dio aitortutako espezialitatean jarduteko:

- Izena NAN

Titulazioa

☐ I. eranskinean, titulazio unibertsitarioa duten pertsonen zerrendaren jarraipena jaso da.

h) Honako langile hauek ditu enpresak, aitortutako espezialitateetan egiaztatutako prestakuntza profesionala dutenak:

-Izena NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

* Adierazi kualifikazioa ematen dion akreditazio-bidea, erregelamendu teknikoaren araberakoa.

☐ I. eranskinean, kualifikatutako pertsonen zerrendaren jarraipena jaso da.

i) Jarduerari lotutako beste akreditazio batzuk ditu enpresak (Kalitate sist.,…)(ez da nahitaezkoa):

j) Industria-erregistroan inskribatzeko datu tekniko-ekonomikoak eransten dira:
(ez da beharrezkoa zerbitzu-prestazio askearen kasuan)

i- Enpresaren jarduera nagusia: EJSN

Enpresaren beste jarduera batzuk: EJSN EJSN

ii- Kapital soziala €

iii- Enpresaren langile kopuru osoa

iv- Eraikinen azalera EAEn m^2 (egoitza nagusiarena)

v- Jardun-eremua ☐ Lurralde historikoa ☐ Autonomia (EAE) ☐ Estatua

vi- Enpresak EAEn dituen sukurtsalen helbide osoa:

	Kalea	Posta Kod.	Udalerria
1.-			
2.-			
3.-			
4.-			
5.-			

vii- Baliabide nagusiak:

1.-
2.-
3.-

Eta, adierazitako espezialitateetan jarduteko gaitze-xedeetarako jasota gera dadin, honako aitorpen hau ematen dut

, 20 ko ren a

(Aitorpena egiten duenaren sinadura eta enpresaren zigilua)

Oharra: Datuen edozein aldaketa, jarduera uztea barne, Lurralde Bulegoari jakinaraziko zaio.

I. ERANSKINA

AITORTUTAKO JARDUERAN KUALIFIKATUTAKO PERTSONEN ZERRENDARI JARRAIPENA EMATEKO ERANSKINA (erantzukizun-aitorpenaren 5.g eta 5.h ataletik)

- Titulazio unibertsitarioa duten beste pertsonen zerrenda (5g)

-Izena | NAN
Titulazioa

-Izena | NAN
Titulazioa

-Izena | NAN
Titulazioa

- Egiaztatutako prestakuntza profesionala duten beste pertsonen zerrenda (5h)

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

-Izena | NAN
Kategoria
Akreditazio edo Titulazioa*

GAITUTAKO ENPRESA IZATEKO ERANTZUKIZUN ADIERAZPENAREN BETEKIZUN OROKOR ETA ESPEZIFIKOEI BURUZKO INFORMAZIO OHARRA

1.- HOZTEKO INSTALAZIOETARAKO SEGURTASUNari BURUZKO ERREGELAMENDUA 138/2011 ERREGE DEKRETUA (2011-3-8ko BOE)

Agindua, 2012ko apirilaren 16koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena; honen bitartez hozteko instalazioetarako Segurtasun Erregelamenduari buruzko arauak eman dira (2012……..……..EHAA).

2.- BETEKIZUN OROKORRAK

Erantzukizun-aitorpenari lotutako betekizun komunak

- Enpresa instalatzailea edo mantentzailea identifikatzen duen dokumentazioa edukitzea; pertsona juridikoa bada, legez eratuta egon beharko du enpresa horrek.
- Aseguru-poliza, abal edo beste finantza-berme bat edukitzea, behar bezala baimendutako erakunde batek emana, erantzukizunaren arriskuak estaltzeko hirugarrenei eragindako kalte material eta pertsonalei dagokienez. Espezialitate bakoitzerako gutxieneko zenbatekoa eta zenbateko hori eguneratzeko metodoa jarraian zehazten dira.

Enpresen beste betekizun komun batzuk

- Zerga-betebeharren erroldan bilduta egotea.
- Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta emanda egotea.
- Pertsona juridikoak badira, bere plantillako langileak egiaztatzeko, eskumeneko administrazioaren eskura Gizarte Segurantzari aurkeztutako TC1 eta TC2 kotizazio-buletinak jartzea, jarduerak garatzeko gaikuntza indarrean dagoen bitartean.
- Pertsona fisikoak edo enpresaburu autonomoak badira, eskumeneko administrazioaren eskura Gizarte Segurantzaren afiliazio-egiaztagiria jartzea.

3.- ARAUZKO BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

3.1.- 1. mailako hozteko instalazioen enpresa.

a) Jarduera segurtasun-baldintzetan egin dezaketen langileak kontratatzea, gutxienez hozteko instalazioen instalatzaile bat barne.
b) Ezbehar-polizaren gutxieneko zenbatekoak 300.00 euro izan behar du.
c) Jarduera segurtasun-baldintzetan egiteko beharrezko baliabide teknikoak edukitzea, indarreko araudiaren eta instalazioaren premien arabera (IF-13).
d) Erabilitako hozgarrien araberako hondakinen kudeaketa plana egoki bat izatea, eta, kasuak kasu, Hondakinen ekoizle txiki gisa izena ematea.
e) Behar izanez gero, 303/2008 (CE) Erregelamendua ka agindutako ziurtagiria edukitzea eta pertsonala 795/2010 ED-ak aginduta bezala akreditatzea.

3.2.- 2. mailako hozteko instalazioen enpresa.

a) Jarduera segurtasun-baldintzetan egin dezaketen langileak kontratatzea, gutxienez Erregelamendu honen gaietan gaituriko titulazio unibertsitario teknikoa duen pertsona bat.
b) Ezbehar-polizaren gutxieneko zenbatekoak 900.00 euro izan behar du.
c) Jarduera segurtasun-baldintzetan egiteko beharrezko baliabide teknikoak edukitzea, indarreko araudiaren eta instalazioaren premien arabera (IF-13).
d) Erabilitako hozgarrien araberako hondakinen kudeaketa plana egoki bat izatea, eta, kasuak kasu, Hondakinen ekoizle txiki gisa izena ematea.
e) Behar izanez gero, 303/2008 (CE) Erregelamendua ka agindutako ziurtagiria edukitzea eta pertsonala 795/2010 ED-ak aginduta bezala akreditatzea.

3.3.- Hozteko instalazioen enpresa automantentzailea (norberaren instalazioak soilik).

a) Jarduera segurtasun-baldintzetan egin dezaketen langileak kontratatzea, gutxienez hozteko instalazioen instalatzaile bat edo Erregelamendu honen gaietan gaituriko titulazio unibertsitario teknikoa duen pertsona bat, bere instalazioak 1. mailakoak edo 2. mailakoak direnaren arabera.
b) Ezbehar-polizaren gutxieneko zenbatekoak 300.000 euro edo 900.00 euro izan behar du, mantenduriko instalazioen mailaren arabera.
c) Jarduera segurtasun-baldintzetan egiteko beharrezko baliabide teknikoak edukitzea, indarreko araudiaren eta instalazioaren premien arabera (IF-13).
d) Erabilitako hozgarrien araberako hondakinen kudeaketa plana egoki bat izatea, eta, kasuak kasu, Hondakinen ekoizle txiki gisa izena ematea.
e) Behar izanez gero, 303/2008 (CE) Erregelamendua ka agindutako ziurtagiria edukitzea eta pertsonala 795/2010 ED-ak aginduta bezala akreditatzea.

4.- LANGILEEN KUALIFIKAZIOA EGIAZTATZEKO ERREGELAMENDUAN JASOTAKO BIDEAK

a) Instalazioak diseinatzeko gaitasuna ematen duen edota, ikasketa-planari jarraiki, erregelamenduan jasotako gutxieneko edukiak betetzen dituen unibertsitate-titulu bat edukitzea.

b) “Hotz-, girotze- eta bero-instalazioak muntatu eta mantentzearen alorreko maila ertaineko edo “eraikin- eta prozesu-instalazioak muntatu eta mantentzearen alorreko goi-mailako lanbide-heziketako titulu bat edukitzea.

c) Prestakuntza Profesionaleko Katalogo Nazionalean barne dagoen Profesionaltasun ziurtagiri bat edukitzea, beti ere, horrek Hozteko Instalazioetarako segurtasunari buruzko Erregelamendu honetako gaietako arlokoa bada.

d) Hozteko instalazioetarako segurtasunari buruzko erregelamenduen gaietan, esperientzia bidezko gaitasuna onartuta edukitzea, uztailaren 28ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, gutxienez erregelamenduan adierazitako edukiak biltzen dituena.

5. ERANSKINA: HOTZ ENPRESAREN ALDIZKAKO BERRIKUSPEN-ZIURTAGIRIA

HOZTEKO INSTALAZIOAREN ALDIZKAKO AZTERKETAREN ZIURTAGIRIA

EGIAZTAGIRI-ZK. ____

INSTALAZIOAREN ERREF. ZK. ____

■ HOTZEKO ENPRESA

Izena ..... IFK .....

Helbidea ..... Tel. .....

Erregistro-zk. .....

Instalatzailearen izena .....

NAN .....

■ EGIAZTATZEN DU

1.- Jarraian agertzen diren ezaugarriak dituen instalazioan egin direla Hozteko instalazioetako Erregelamenduko IF-14.2ak agintzen dituen egiaztapen eta froga guztiak.

Instalazio tipoa ☐ Berria ☐ Handitzea edo moldaketa

Instalazioaren maila ☐1 ☐2 Instalatutako potentzia ..... kW

Titularra ..... IFK .....

Kalea ..... Zk. .....

Herria .....

Lokal mota-maila (1) ..... Xedea (2) .....

Hoztorrea (kondentsadore ebaporatiboa) ☐Bai ☐ Ez

Ekipo mota (3)	Ekipo kop.	Hozgarria kod./ taldea (4)	Kopurua [kg]	Konpr. zk.	Konp. pot. (5)	Eduk. [m^3] (6)	Mak. Kokap. (7)
		/					
		/					
		/					
		/					
		/					

☐ 2/2 Orrialdean jarraitzen du

(1) Biltegia, fabrika, jatetxe, denda, etxebizitza, bulegoa, etab.-eta maila A,B,C edo D.
(2) Iragankorren tratamendua, edo industri prozesua, edo izozte tunela, edo izotz- fabrika, edo patinajeko pista, edo klimatizazioa.
(3) 0º< kamara, edo 0º>kamara, edo hozkailua, edo absorzio-ekipoa, edo atm. artif. kamara.
(4) Hozgarriaren zk. R-XXX (ISO 817ren arabera) eta taldea L1, L2 edo L3.
(5) Mota honetako ekipo guztien potentzia totala.
(6) Kamaren edukiera m^3-tan.
(7) Makinen kokapenaren sailkapena: Tipo 1, tipo 2 edo tipo 3.

2.- Honako moldaketak, aldaketak edo eraldaketak antzeman direla.

3.- Azterketa honen ondorioz, instalazioak

☐ Segurtasun baldintzak betetzen dituela eta ez direla akatsik antzeman.

☐ EZ DITU SEGURTASUN BALDINTZAK BETETZEN eta honako akats hauek atzeman direla

OHARRAK

, ko ren a

(Sinadura eta zigilua)

6. ERANSKINA: DESEGITEAREN ZIURTAGIRIA

HOZTEKO INSTALAZIOA DESEGITEAREN ZIURTAGIRIA

EGIAZTAGIRI-ZK.

INSTALAZIOAREN ERREF. ZK.

■ HOTZEKO ENPRESA

Izena ..... IFK .....

Helbidea ..... Tel. .....

Erregistro-zk. .....

Instalatzailearen izena .....

NAN .....

■ EGIAZTATZEN DU

1.- Jarraian agertzen den instalazioa eta osatzen duten ekipoak eraitsi direla, 138/2011 EDa araudiaren eskakizunei jarraituz.

Titularra ..... IFK .....

Kalea ..... Zk. .....

Herria .....

Instalazioaren deskribapena

2.- Instalazioan zeuden honako hozgarrien berreskurapena egin dela:

1. Hozgarri mota ..... Kopurua ..... kg

2. Hozgarri mota ..... Kopurua ..... kg

OHARRAK

, ko ren a

(Sinadura eta zigilua)